

DIRUA ITZULTZEKO BERMEAREN KONTRATAZIOA

Inskripzioa egin duzula lasterketara joaterik ez baduzu, Donostiako Zurich Maratoiaren antolatzaileek aukera ematen dizute inskripzioko dirua itzultzea bermatzeko. Horretarako, dirua Itzultzeko Bermea kontratatu behar duzu, formularioaren bitartez.

Behin inskripzioa egin ondoren, inola ere ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko, eta ezingo da etorkizuneko edizioetarako gorde ere (besteak beste, istripuak, lesioak, doako inskripzioak eta abar barne, baina ez dira mugatuko). Inskripzioa egiterakoan, itzulketa-berme bat kontratatzeke aukera egongo da; horrek inskripzioaren zenbatekoaren %100a itzultzea bermatuko dio parte-hartzaileari azaroaren 4a arte 18:00-tan, eta egun horretatik (azaroak 4 18:01-tan) azaroaren 11ko 23:59ra arte, ordaindutako zenbatekoa hurrengo ediziorako gordetzeko aukera eskaintzen du.

NOLA ESKATU ITZULTZEKO BERMEA?

GARRANTZITSUA: Erregistroa egiten den egun berean kontratatu beharko da bermea.

Ez da erregistroa kudeatu ondorengo kontrataziorik onartuko.

Bermea kontratatzeke, ST bitartez egin beharko da ordainketa, inskripzio formularioetik.

BERMEAREN OINARRIZKO ARAUAK

Berme hau bere izenean sinatzen duen parte hartzaileak honako hau irakurri eta onartu duela adierazten du:

Lehena.-Bermea erregistroaren egun berean eta une berean baino ezingo da kontratatu. Ez da erregistroa formalizatu ondorengo bermerik onartuko. Bermea ST bitartez ordainduko da.

Bigarrena.-Antolakuntzak ordaindu egingo ditu parte hartzaileak inskripzioa baliogabetzeko unera arte ordaindutako zenbatekoak, baina bakarrik inskripzio kontzeptukoak eta inskripzio formularioaren bitartez eskuratutako osagarriei dagozkienak. Bermearen zenbatekoa ezin da itzuli, ezta erositako bidaia-paketea ere (hotela, hegaldiak, etab.).

Hirugarrena.-Bermeak erregistroaren unetik (aurrez ordainketa egiaztatuta) 2025eko azaroaren 4eko 18:00ak arte iraungo du. Data horretatik azaroaren 11ra arte, hurrengo edizioan gordetzeko aukera eskaintzen da.

Laugarrena.- Parte hartzaileak ST bitartez ordainduko du, inskripzio formularioetik, erregistroaren egun berean.

Bosgarrena.- Ez da lehen edo laugarren puntua betetzen ez duen inolako bermerik onartuko.

Seigarrena.- Baliogabetze prozesua gauzatzeko, parte hartzaileak mezu elektronikoa bidali beharko dio antolakuntzari (info@zurichmaratonsanbastian.com), baja emanaz aditzera.

GARRANTZITSUA: ordaindutako zenbatekoa ordainketa-sistema beraren bidez itzuliko da, hau da, ordainketa egiteko erabili zen txarteletan kontuan ordainduko da dirua, bermearen zenbatekoa izan ezik.